

Covid-19aren eragina, enplegua eta ikastearen garrantzia




Covid-19ak Euskadin izaten ari den eragin ekonomikoaren inguruan IKEIk egiten ari den azterketari jarraipena emanez, ohar honek pertsonen prestakuntza-profilen eta langabeziaren inguruko emaitzen panel bat jasotzen du, **helduen bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarekin batera. Ikaskuntzak estrategia indibidual eta kolektibo gisa duen garrantziari buruzko hausnarketa bultzatu nahi da.**

BJAk (Eustat) EAerako emandako datuek erakusten dute 2016 eta 2020 **artean langabezia-tasa nabarmen beheranzkoa dela ikasketa-mailak gora egiten duen heinean.** Hala ere ikusten da **langabezia-tasaren jaitsiera handiagoa izan dela ikasketa-maila txikiena duen taldean covid krisialdira arte (-8,3pp)** bigarren mailako eta erdi-mailako ikasketak dituztenen taldean (-3,0pp) edo goi-mailako ikasketak dituztenen taldean (-3,6pp) baino. Bi talde horiek langabezia-tasa txikiagoak dituzte, eta, beraz, lehen mailako ikasketak dituztenen taldean erregistratutako jaitsierak -nahiz eta handiagoa izan- ez da nahikoa hiru taldeen langabezia-tasak bateratzeko. Hau da, lan-merkatua suspertzen ari den egoera batean (2020ko martxoaren erdira arte), **prestakuntza baxuagoa duten biztanleen egoera oraindik ere okerragoa da.**

Biztanleria langabetua eta langabezia tasa, amaitutako ikasketa mailaren arabera. EAE

	2016	2017	2018	2019	2020
Guztira	156,1	123,1	120,9	109,0	104,4
Lehen mailakoak edo gutxiago	59,9	46,0	41,4	36,4	33,3
Bigarren mailakoak	61,0	46,6	47,0	46,4	47,5
Goi mailakoak	35,1	30,5	32,6	26,2	23,6

Urteko lehen hiruhilekoko datuak
Iturria: BJA (Eustat)



Zer gertatzen ari da covid-19aren krisiarekin? Lanbidek emandako informazioak erakusten du zer eragin izan duen enplegu-suntsiketak: otsaila eta maiatza bitartean, 24.064 langabe gehiago erregistratu ziren EAEn. Narriadura egoera horretan, badirudi inpaktua arindu egin dela; izan ere, **martxoak eta apirilak atzerakadaren zatirik handiena** bereganatzen dute (10.761 eta 10.240 pertsona gehiago, hurrenez hurren) eta maiatzean txikiagoa izan da, normaltasunera apur bat itzulita (3.063 pertsona gehiago).

Bestalde, krisi horren eraginak zenbait desberdintasun erakusten ditu aztertutako lau prestakuntza mailen arabera: otsaila eta maiatza bitartean erregistratutako atzerakadan ikusten da **erregistratutako langabeziaren igoera handiagoa izan dela ikasketa-mailak gora egin ahala.**

Biztanleria langabetua eta amaitutako ikasketa maila. Hilabeteko bilakaera. EAE


	otsaila	mar	apirila	maiatza	Hilabete arteko bilakaera (kop)			Aldea maiatza/otsaila (%)
					martxo/otsail. 2020	apiri./martxo 2020	maiatza/apiri. 2020	
Guztira	117.237	127.998	138.238	141.301	10.761	10.240	3.063	20,5
Derrigorrezkoak arte	70.884	76.815	82.229	83.496	5.931	5.414	1.267	17,8
Batxilergoa	10.556	11.677	12.636	13.089	1.121	959	453	24,0
LH	21.368	23.538	25.575	26.391	2.170	2.037	816	23,5
Unibertsitatea	14.429	15.968	17.798	18.325	1.539	1.830	527	27,0

Iturria: Lanbide

Beraz, lehenengo ondorio batek **covid-19aren krisiak prestakuntza handiagoko enpleguan eragin handiagoa izango lukeela** pentsatzera eramango luke lehen inpaktu horretan, Lanbide Heziketa eta/edo goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean langabezia gehiago igotzearekin bat.



Biztanleria langabetua eta amaitutako ikasketa maila. Hilabeteko bilakaera. EAE



Iturria: Lanbide

Hala ere, emaitza horren azalpen posible bat arreta- eta hurbiltasun-zerbitzuen tarte zabal bati eustea da, kasu askotan kualifikazio txikiko okupazio-profilei lotuta, eta horiek indartu ere egin dira. Bestalde, **deseskalatzeko prozesuaren progresioak eta normaltasunera itzultzeak agerian utziko dute lehen zantzu hori datozen hilabeteetan mantentzen den ala ez.**

Izan ere, 2020ko maiatzean, EAEn langabezian dauden pertsonen %59k **derrigorrezkoak diren ikasketak** dituzte soilik (83.496 pertsona), eta otsailarekin alderatuta, talde horrek **12.612 pertsona batu ditu**. Zifra horrek **gainditu egiten du kontuan hartutako beste hiru prestakuntza-blokeen gehikuntza** (2.533, 5.023 eta 3.896, batxilergoko, LHko eta unibertsitateko ikasketak dituzten pertsona gehiago, hurrenez hurren). Hau da, ehunekoen igoera alde batera utzita, **dimentsio handieneko eta enplegarritasun txarreneko kolektiboa** (langabezia-tasa handiena) **prestakuntza-maila txikiaren** da.

Bi erakunde duela gutxi argitaratu **dituzte langabezian dauden pertsonen arreta espezifikoa ematearen garrantzia eta prestakuntza-estrategien garrantzia aipatzen duten txostenak, bereziki IKTei lotutakoak, are garrantzitsuagoa egungo krisiaren esparruan.**

Alde batetik, **Espaniako Bankuak** (*covid-19aren ondorioz eraginpean egon daitezkeen sektoreetako langileen trebetasunen transferigarritasuna*) **langabezian geratu diren pertsonen** egoera aztertu du, covid-19aren krisia dela eta, batez ere **merkataritza- eta ostalaritza-**sektoreei lotutakoak. Azterlanetik ondorioztatzen da pertsona horien okupazio-mugikortasuna urria dela; izan ere, oro har, ez dituzte beharrezko diren trebetasunak, hala nola IKTen erabilera eta/edo oinarriko gaitasunak (ahozko eta idatzizko komunikazioa, irakurmena, arazoak konpontzea, etab.), gorabidean dauden lanbideetan eskatzen direnak edo birkokatzeak aukera ematen dietenak. Ildo horretan, gomendatzen du **teknologia berrien** erabilera nagusi den lan-merkatuan ezinbestekoa izan beharko litzatekela **persona horiek beren ezagutzak hobetzea, beste lanpostu batzuetara igarotzea errazteko.**

Mezu hori indartu egiten du **CEDEFOPek** (*Note on lifelong guidance and the COVID-19 pandemic: Responses from Cedefop's CareersNet*), eta **gida digitalen** sistemak eduki behar direla adierazten du, **personei laguntza bermatzeko** sistema presentzialak eteten diren une honetan. Berriz ere, azpimarratu du **bizitza osoan zeharreko prestakuntzak eta ikasketak garrantzi handia** dutela pertsona guztientzat, eta **gaitasunak eta trebetasunak egokitzeko sistemak** behar direla, osagai digitala nabarmenduta, kolektibo guztientzat, baina, bereziki, zaurgarrientzat, prestakuntza-maila txikiagoengatik eta/edo gehien erasandako profil okupazionalengatik.

Laburbilduz: **covid -19aren krisiaren eraginez, enpleguaren suntsipen handia gertatu da, eta horrek eten egin du euskal lan-merkatuan izandako aurreko hobekuntza-boladarekin.** Hala ere, **langabezia-tasak nabarmen handiagoa izaten jarraitzen du prestakuntza-maila txikiagoetan.** Bestalde, **covid-19aren krisiaren lehen inpaktuak prestakuntza altueneko taldeetan langabeziaren ehuneko-igoera handiagoa izatea ekarriko luke;** hala ere, bolumenari dagokionez, talde handiena (eta pertsona gehien batzen dituena) **prestakuntza txikiaren** izaten jarraitzen du. **Enplegarritasunaren eronka -indibiduala eta kolektiboa- gero eta gehiago "neurria" egindako orientazioa (presentziala eta birtuala) bermatzea eskatzen du, trebetasun-maila zabaleko prestakuntza- eta gaikuntza-estrategietan oinarritua, eta horien artean gaitasun digitala nabarmentzen da.**